

Papera nola egin ikasgelan

Hiztegia


belaki
zali
bahe
irabiagailu
geruza

Abiapuntua

Papera landu dugu aitzineko sekuentzietan. Ildo beretik, eskolan paperaren egitea proposa genezake.

Jarduera

- Taldeak egin eta argibideen fitxak banatu (ondoko fitxak ikus).
- Lan egitera utzi behar den denbora.
- Bilana egin. Non dira akatsak ?
Zer egin produkzioaren hobetzeko ?



Paperaren egiteko fitxa



1 Egunkari-papera eskuz puska eta ur epelean trenpan utz. Irabiagailuaz ore a ongi nahas.

Materiala

- plastikozko ontzi bat
- zalia
- mokanes bat
- belakia
- bahea
- egunkari-papera
- ura



4 Bahe azpian agertzen den ura belakiaz ken. Gainean ere belakia iragan.



2 Zaliaz ore a bahe barnean barreia geruza mehe bat ezarriz.



5 Emeki-emeki oihala bi eskuz altxa. Papera loturik heldu da.



3 Mokanes edo oihal bat ezar orearen gainean, zabal zabala.



6 Idortzera utz. Eztiki eta artoski orria deslotu beharko da. Nahi den forma eman ez moztzen da. Eta gainean idatz daiteke !